



## Eibarren 675. urteurrenaren logotipoa diseinatzeko lehiaketaren oinarriak

Eibarko Udalak, Ego Ibarra Batzordearen bidez, Alfontso XI.ak 1346ko otsailaren 5ean emandako hiri-kartaren 675. urteurrena gogora ekartzeko logotipoa diseinatzeko lehiaketa deitu du, honako oinarri hauen arabera:

### ONARRIAK:

#### 1. LEHIAKETAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da **Eibarko fundazioaren 675. urteurrenaren logotipoa eta nortasun korporatiboa** hautatzeko lehiaketaren baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura zehaztea, lehiaketa araubidean.

Lehiaketa honek hiriaren historian interesa duten pertsonen sormena sustatu nahi du, baita diseinu grafikoarekin eta komunikazioarekin zerikusia duen jende ororena ere. Logotipo hori izango da urteurren honen esparruan egiten diren ekintza guztietan gehien ikusiko den elementua.

#### 2. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Eibarren bizi den edo eibartarra edo bertan jaioa izan eta beste bizileku bat duen adin nagusiko edonork parte hartu ahal izango du.

Parte hartzaileek gehienez 2 lan original aurkeztu ahal izango dituzte.

#### 3. GAIA

Urteurrenaren logotipoak Eibar eta bere historia izango ditu jomuga eta xede, herriaren 675. urteurrena delako.

#### 4. LOGOTIPOAREN BALDINTZA TEKNIKOAK ETA EDUKIA.

Lehiaketan parte hartzeko, logotipoaz gain, beste dokumentu batzuk ere aurkeztu beharko dira, hala nola logotipoari buruzko memoria, irudi korporatiboaren oinarritzko eskuliburua eta logotipoa papertegietan, prentsa idatzian, argitalpenetan eta abarretan aplikatzeko adibideak.

Hauexek dira logotipoaren baldintza teknikoak eta gainerako edukiak:

##### 4.1. Logotipoak, nahitaez, honako **legenda** hau jaso behar du:

##### **Eibar 1346-2021**

Logotipoaren bertsio ezberdinak (logotipoa koloretan, grisen eskalan, edo zuri-beltzean) eta haren aldaerak bektore-formatuan nahiz bits-mapa formatuan aurkeztuko dira, kode irekiko diseinu-programekin manipulatu ahal izateko; hori dela eta, ahal dela formatu estandarrak erabiliko dira (JPEG, SVG, etab.).



**4.2. Logotipoaren memoria:** obraren sorrera eta esanahia azaltzen edo ulertzen laguntzen duten elementu guztiak jasoko ditu: proposatutako logotipoaren **izaera bisualeko oinarrizko elementuak**, hau da, neurrien arteko erlazioa eta elementuen arteko egoera, koloreak eta gris-en eskalako edo zuri-beltzeko bertsioa.

**4.3. Irudi korporatiboaren oinarrizko eskuliburua:** tipografia, koloreak ohiko nomenklaturaren arabera, neurrien arteko erlazioa eta elementuen arteko egoera hartuko ditu bere baitan.

**4.4. Proposamena paperean aplikatzeko adibideak:** (gutunak, dokumentuak, gutunazalak, bisita-txartelak...), **idatzizko prentsan, esku-orrietan eta argitalpenetan, merchandising-ean eta oinarrizko kanpo- eta barne- seinalizazioan**, eta abarretan (adibide batzuekin nahikoa izango da).

## 5. LEHIAKETAN IZENA EMATEA

Izena **elektronikoki (online)** emango da [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean. Izapide elektronikoa egiteko beharrezkoa da ziurtagiri digitala izatea (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPEren txartela, etab.).

**Izena emateko epea 2021eko urtarrilaren 15ean amaituko da (egun hori barne)**

Parte hartu nahi duten pertsonak **elektronikoki bete beharko dute izena emateko inprimakia eta ondoko agiriak erantsi, oinarri hauetako 4. atalean adierazitako baldintza teknikoak betez.**

- Logotipoa.
- Logotipoaren memoria.
- Irudi korporatiboaren oinarrizko eskuliburua.
- Proposamena paperean aplikatzeko adibideak, idatzizko prentsan, esku-orrietan eta argitalpenetan, merchandising-ean eta oinarrizko kanpo- eta barne- seinalizazioan.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 2 lan original aurkeztu ahal izango ditu.

Obra bakoitzeko izen-emate edo inskripzio bat egin beharko da.

Proposamena bidali ondoren, ezin izango da erretiratu.

## 6. SARIA

Irabazleari 1346 euroko sari bakarria emango zaio (dagokion zerga-atxikipena izango du).

## 7. EPAIMAHAIAREN OSAERA ETA ALDEZ AURREKO HAUTAKETA

**Hiru logotipo finalisten** aukeraketa epaimahai batek egingo du eta epaimahai hori hauek osatuko dute: Eibarko Artxiboko arduradunak, Dibujo Eskolako irakasle titularrak, Arte Ederretako Eibarko unibertsitate-irakasle batek, udal arkitektoak, Alkateak, eta Ego Ibarra Batzordeko zinegotziek. Batzordeko idazkariak egindako hautaketaren akta jasoko du, hitzarekin baina botorik gabe.



Epaimahaiaren iritziz oroimen historikoa hobekien identifikatzen eta ordezkatzeko duten 3 lanak aukeratuko dira; lanak baloratuko dira, originaltasuna, argitasuna, sormena eta kalitate artistikoa kontuan hartuta, eta, halaber, zer espazio eta formatutan egokitu daitezkeen aztertuta.

Epaimahaiak baztertu egingo ditu konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo iraingarriak diren logotipoak.

## 8. HERRI-GALDEKETA IREKIA ETA AZKEN HAUTAKETA

Hiru logotipo finalistak Udalaren webgunean jarriko dira ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), 2021eko urtarrilaren 17tik 31ra, herritarrek botoa eman dezaten.

Logotipo irabazlea aukeratzeko bozketan 14 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute, botoa ematen duten unean Eibarren erroldatuta daudenek.

Bozketa egiteko, esteka honetan dagoen formularioa bete behar da: <https://www.eibar.eus/logoa675>

Izen-deiturak eta NAN, AIZ, pasaportea... besterik ez da adierazi behar, eta 3 logotipoetako bat aukeratu.

Udalak egiaztatuko du erroldatze- eta adin-baldintzak betetzen direla.

Pertsona bakoitzeko boto bakarra onartuko da. Boto bat baino gehiago eman bada, emandako lehen botoa baliozkotzat joko da.

Epaimahaia otsailaren 4an bilduko da, jasotako bozketen akta egingo du eta herri kontsultaren emaitzaren logotipo irabazlea jakinaraziko du.

## 9. EGUTEGIA

- **Izena emateko epea:** 2021eko urtarrilaren 15ean amaituko da.
- Epaimahaiak **hiru logotipo finalistak aukeratuko dituen eguna: 2021eko urtarrilaren 18a.**
- **Hiru logotipo finalistaren erakusketa eta herri-galdeketa:** 2021eko urtarrilaren 18tik 31ra, herritarrek botoa eman dezaten.
- **Herri-kontsultaren botoen kontaketa eta logotipo irabazlearen jakinarazpena:** 2021eko otsailaren 4a.

## 10. AURKEZTUTAKO LANAK

Lehiaketara aurkeztutako lanen jabe guztiek baimena ematen diote Udalari beren proposamenak erakusteko eta beharrezkoak iruditzen zaizkion euskarri digital eta fisiko guztietan erreproduzitzeko.

Parte-hartzaileek bidalitako materialaren kopia gorde behar dituzte, ez baitira itzuliko. Prozesua bukatutakoan, lan guztiak Udal Artxiboan gorde eta zainduko dira.

## 11. IRABAZLEAREN KONPROMISOAK



Lehiaketaren irabazleak konpromisoa hartzen du bere jatorrizko diseinutik abiatuta logotipoa erabiltzeko behar diren egokitzapenak egiteko, beharrezkoa izanez gero.

## 12. LANEN ORIGINALTASUNA ETA JABETZA-ESKUBIDEA

Lan guztiak originalak izango dira. Ezingo dira erabili osorik edo zati batean hirugarrenen lanik.

Diseinu irabazlearen egileak Eibarko Udalari lagatzen dizkio, eskusiboki, lan irabazlearen ustiapen-, erreproduzio-, manipulazio-, edizio- eta erakusketa-eskubideak, bai eta obraren jabetza industrialarenak ere, apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretuaren 17. eta 48. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Irabazleek erantzukizun osoa hartuko dute beren gain sor daitekeen edozein eratako erreklamazioen aurrean, edo aurkeztutako lanen originaltasunari, antzekotasunei edo kopia partzialei buruz hirugarrenek egin diezazkieketen erreklamazioen aurrean.

## 13. OINARRIAK ONARTZEA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEIA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek, epaimahairen hasierako epaia, eta herri-bozketaren epaia onartzea dakar; baita Eibarko Udalak gaiaren inguruan ematen dituen ebazpen guztiak ere.

Informazioaren tratamenduan kontuan hartuko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

Lehiaketaren antolaketarako departamentuari euskarri informatikoa emateko erabiliko dira datu pertsonalak, interesdunak emandako baimenean oinarritua eta tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoekin bat etorritik. Horrela daude jasota hurrenez hurren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluko a) eta e) letretan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan.

**Tratamenduaren erantzulea:** Egoibarra. Telefonoa: 943 70 84 23.

Emaila: [egoibarra@eibar.eus](mailto:egoibarra@eibar.eus).

**Eskubideak:** Gogorazten dizugu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, aurka egiteko edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea duzula. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar diozu Eibarko Udaleko tratamendu-arduradunari, helbide honetara: Untzaga plaza 1 – 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Datu hauek eman behar dituzu: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskabidea, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

## 14. PUBLIZITATEA

Deialdi honen testu osoa Udalaren webgunean dago: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)



## 15. KUDEAKETA-ERAKUNDEA

Interesdunek argibideren bat edo galderaren bat egin nahi izanez gero, Eibarko Udaleko Ego Ibarra Batzordearekin harremanetan jarri ahal izango dira, telefono honetara deituz: 943 70 84 21 / 943 70 84 23 edo posta elektronikoz: [egoibarra@eibar.eus](mailto:egoibarra@eibar.eus)

## 16. APLIKATZEKO LEGERIA

Sariak emateko, deialdi honetako oinarri arautzaileetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzeko xedapenetan, Eibarko Udalaren 2020ko Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan, aplikagarri diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauetan ezarritakoa aplikatuko da, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko gainerako arauetan ezarritakoa. Sariak justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30.7 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.